

**2017KO IRAKASLE-IKERTZAILEEN EGIAZTAPEN
PROGRAMAREN DEIALDI OROKORRAREN ESKATZAILEEN
ASETZE INKESTAREN AZTERKETA**

Inkestaren data: 2017ko ekaina

SARRERA

Irakasle-ikertzaileen 2017ko egiaztapen deialdi orokorrean, 436 eskatzaile aurkeztu ziren, figura desberdinetarako eskaerak 649 izanik, ondoren adierazten den bezala banaturik:

Irakasle atxikiak = >246

Irakasle agregatuak = >177

Doktore tituludun ikertzaileak = >74

Unibertsitate Pribatuko Irakasle Doktoreak = >132

Irakasle Osoak = >20

Behin ebaluazioen erabakiak eta berraztertze-errekurtsoetako erabakiak jakinarazita, asetze galdeketa bidali zen eta 124 eskatzailek erantzun zuten. Lortutako erantzunaren emaitza aurreko deialdiaren baino askoz gutxiago izan da, %28,44ekoa, hain zuzen ere.

Emaitzaren jaitsieraren arrazoia azken deialdi honetan ekainean baizik inkesta uztailean bidali delako izan daiteke.

Azkeneko deialdietako parte-hartze kopurua:

- 2015 -> 30%
- 2016 -> 84,51%

Generoari dagokionez, inkesta bete dutenengatik %54,84 emakumeak izan dira, aurreko urtean baino gehiago eta %45,16 gizonak, aurrekoan baino apur bat gutxiago.

Aurreko deialdietako emakumezkoen eta gizonezkoen parte-hartzea:

- 2015 -> 40,67% emakumezkoak y 59,32% gizonezkoak
- 2016 -> 52,88% emakumezkoak 47,12% gizonezkoak

Jasotako erantzunen artean % 85ek baino gehiagok aldeko ebazpena lortu zuen, aurkeztutako figura batean behintzat.

Ondoren, inkesta erantzun dutenen datu batzuk adierazten dira.

Behintzat aurkeztutako figura batean aldeko emaitza lortu duten eskatzaileak:

- 2015 -> 62,71%
- 2016 -> 60,00%

Eskatzaileen batez besteko adina aurreko urtean baino altuagoa da, 39,4 urte izanik.

Aurreko deialdietako batez besteko adina:

- 2015 -> 38,6
- 2016 -> 37,7

INKESTAREN AZTERKETA

Galderak baieztapen bezala planteatu ziren eta inkestatutakoek bere adostasuna adierazi behar zuten, 1 batere ados, eta 5 guztiz ados izanik

Web orrian argitaratutako informazioa argia eta nahikoa da	1 = 5 2 = 7 3 = 19 4 = 61 5 = 32 Med= 3,8	Unibasq-eko lankideak emandako tratua atsegina da	1 = 3 2 = 1 3 = 14 4 = 35 5 = 67 Med= 4,3
Argitaratutako laguntza gidak erabilgarriak direla irizten dut	1 = 4 2 = 6 3 = 22 4 = 56 5 = 36 Med= 3,9	Unibasq-ek emandako formakuntza erabilgarria izan zitekeela pentsatzen duzu	1 = 10 2 = 10 3 = 31 4 = 42 5 = 22 Med= 3,4

Aplikazio informatikoaren erabilera erraza da	1 = 4 2 = 8 3 = 26 4 = 54 5 = 32 Med= 3,8	Ebaluazioen ebazpenak erabaki denborarekin ados nago	1 = 6 2 = 4 3 = 22 4 = 55 5 = 36 Med= 3,9
Unibasq-etik jasotako arreta azkar eta eraginkorra da	1 = 4 2 = 3 3 = 16 4 = 48 5 = 50 Med= 4,1	Prozedura, normalean irakasleak ebaluatzen erabilitako irizpideetara egokitzen da	1 = 9 2 = 8 3 = 27 4 = 46 5 = 30 Med= 3,6

Joan den urtearekin konparatuz items batzuk hobetu egin dira, adibidez web-orrian argitaratutako informazioari dagokiona, argia eta nahikoa dela eta argitaratutako gidak lagungarriak direla pentsatzen dute, protokolo berriaren argitalpenagatik izan daiteke, irizpideak eta prozedura hobeto ulertzeko balio izan baitu. Aplikazio informatikoa ere protokolo berrira moldatu da eta zentzu honetan deialdi bakoitzean bai pertsona eskatzaileen lana, bai ebaluatzaileen lana errazteko hobekuntzak egiten dira.

Nabarmentzekoa den eta eskatzaileen aldetik balioespen ona duen beste alderdi bat Unibasq-eko lankideak emandako tratu atsegina eta Unibasq-ek eman duen arreta bizkorra eta eraginkorra da. Garrantzi handiko alderdi honetan lanean jarraituko dugu, Irakasle-Ikertzaileen Egiaztapen Programaren eskatzaileei kalitate-zerbitzua emateko.

OHARPENEN ETA IRADOKIZUNEN LABURPENA

Eskatzaile batzuek autoebaluazioa egin ahal izateko irizpideak eta atal bakoitzaren meritua bakoitzaren puntuazio zehatza ezagutzeko garrantzia adierazten dute. Eta txosten negatiboen motibazioei dagokienez, azalpen gehiago ematea eskatzen da, zertan hobetu jakiteko.

HOBEKUNTZAK, OHARPENAK ETA IRADOKIZUNAK KOTUAN IZANIK

- 1) Aplikazio informatikoa deialdia ireki baino hiru hilabete lehenago erabilgarri egongo da, eskatzaileak eskaera bete eta dokumentuak igo ahal izateko. Bestalde merituak kronologikoki ordenatu ahal izango dira.
- 2) Unibasq bere Gobernu Kontseiluaren bitartez unibertsitateekin koordinatzeari ekingo dio.
- 3) Unibasq ebaluazio prozesuarekin zerikusia duten gaiak argitzeko asmoz urteroko irakasle-ikertzaileen egiaztapena azaltzeko urteroko jardunaldiarekin jarrituko du. Honetaz gain, unibertsitateek eskatzen dituzten jardunaldi zehatzetarako bere prestutasuna berrezten du.